

Fakultatean ikasten hasi aurreko lantegia egingo dute larunbatean

2015/03/10

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak "Fakultatean ikasi aurreko lantegia" prestatu du hurrengo ikasturteko ikasleek fakultatea eta Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza eredia bertatik bertara ezagutzeko aukera izan ditzaten. Lantegia zuzenduta dago inskripzioa eginda duten ikasle guzientzat eta larunbatean egingo da, hilak 14, goizeko 11:00etan. Hezkuntzako 47 ikaslegaiak Eskoriatzako campusean elkartuko dira, komunikaziokoak, aldiz, Aretxabaletakoan.

Goiz bateko lantegi horretan ikasleak aukera izango du, batetik, unibertsitatearekin lehenengo harreman bat izateko, bestetik, bertatik bertara ezagutzeko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen lan egiteko moduak, eta, azkenik, ezagutzeko, giro informal batean, ikaskide izango dituen lagunak. Gainera, elkargune hori baliatuko da argitzeko graduaren gainean egon daitezkeen zalantzak eta informazio emateko biziaren unibertsitarioaren gainean.

"Fakultatean ikasten hasi aurreko lantegian" parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ikasketetan inskripzioa eginda izatea.

Behin unibertsitatara sartzeko beharrezko baldintzak beteta izanda, lantegian parte hartu izanak bidea emango die zuzenean matrikula egiteko.

Martxoaren 14a egun bitxia izango da fakultatean, izan ere, egun horretan bi campusetan triler egin ahal izango dute etorkizuneko ikasleek eta ikasle ohiek. Ikasle ohiek etorriko dira, MUKide ikasle ohien elkarteak gonbidatuta, 10. urteurreneko ekitaldira.

